


Denboraren makina

N A G O R E I R A Z U S T A B A R R E N A

Roland Garroseko euskal txapelduna



Jean Borotra
(1898-1994)

1931ko urtarrilean, Berlinen jokaturako tenis txapelketa batean. "Euskaldun jauzilaria" ezizenaz ezaguna, txapela buruan jokatu ohi zuen.

PARIS, 1925. Ordura arte Frantziako tenis txapelketa nazionala zena zabaltzea eta nazioarteko jokalaririk gabekoak gongoratzea erabaki zuten. Bestela esanda, Roland Garros sortu zen, izen hura hiru urte geroago estadio berria eraiki arte hartu ez bazuen ere. Lehen Roland Garros hartako finalera René Lacoste –krokodiloa bordatuta duten arropengatik ezaguna, gaur egun– eta Jean Borotra euskalduna (Miarritze, 1898–Arbona, 1994) iritsi ziren.

Indarrak parekatuta egon arren, aurreko urteko emaitzak ikusita Borotra faboritua zen Roland

Garroseko palmaresa estreinatzeko. 1924an, torneo oraindik nazioartekoa ez zenean, Miarritzeko tenislariak irabazi zuen Frantziako txapelketa, Lacoste bera mendean hartuta. Urte hartako Wimbledoneko finala era biek jokatu zuten eta berriro Borotra izan zen garailea.

Baina 1925eko finala erraz irabazi zuen Lacostek, hiru setetan (7-5, 6-1, 6-4). Txapela jantzita jokatzeko ohitura izan arren, Borotra ez zen orduko hartan txapelduna izan. Eta urte hartako Wimbledoneko finala ere galdu zuen, Lacosteren aurka berriro.

Hurrengo urtean, Borotrak finalaurrekoetan egin zuen topo Lacoste amesgaiztoarekin, eta finaletik kanpo geratu zen. "Euskaldun jauzilaria" –hala esaten zioten, jokoan egiten zituen salto ikusgarriengatik– 1929an lortu zuen berriro finalean sartzea, eta berriz arerio beraren aurka. Partida estua eta borrokatua izan zen, eta Lacostek bost setak agortu behar izan zituen Borotra menperatzeko (6-3, 2-6, 6-0, 2-6, 8-6)

1931n beste aukera bat izan zuen Miarritzekoak txapelketa lortzeko. Baina parean ez zuen René Lacoste izan, Christian Boussus baizik. Eta lehenengo seta galdu arren, hurrengo hirurak jarraian irabazi (2-6, 6-4, 7-5, 6-4) eta, azkenean, Roland Garroseko txapelduna izatea lortu zuen, buruz buruko torneoari dagokionean behintzat. Gizonezkoen binakako finala lehenago irabazia zuen, 1925eko lehen nazioarteko txapelketa hartan, hain zuzen. Eta ezetz asmatu nor izan zuen bikotekidea: René Lacoste arerio eta laguna.

Arrastoak

Malcolm X-en hiltzailea aske utzi dute

THOMAS HAGAN-EK, Malcolm X hiltzeagatik atxilotutako hiru gizonetatik bere burua atentatuaren egiletzat jo zuen bakarrak, baldintzapeko askatasuna lortu berri du 44 urte eta gero. Malcolm X tiroz hil zuten New Yorken hitzaldi bat ematen ari zela, 1965ean, Nation of Islam taldea utzi

eta urtebetera. Hagan talde horretako kidea zen, eta ihes egiten ahalegindu zenean zauritu eta atxilotu zuten.

Baina Haganen zigorraren amaierak ez du argitu Malcolm X-en hilketa konspirazio baten ondorioa izan ote zen, hiltzaileak beti adierazi baitu ez zuela inoren agindurik jaso, bere kabuz ari zela.

